

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

5674

61/2021 EBAZPENA, urriaren 28koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren arteko hitzarmena, memoriaren, bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan.

Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak hitzarmen hori sinatu ondoren, eta behar duen publikotasuna emateko, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara ematea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren arteko hitzarmena, memoriaren, bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan. Eranskin gisa dago jasota.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urriaren 28a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
JON IÑAKI URBINA GARCÍA DE VICUÑA.

2021eko azaroaren 8a, astelehena

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA
LEGE BILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN URRIAREN
28KO 61/2021 EBAZPENARENA

Gobierno de Navarra
Departamento de Relaciones
Ciudadanas



Nafarroako Gobernua
Herritarrekiko Harremanetako
Departamentua

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILADEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTIZIA Y POLÍTICAS SOCIALES

LANKIDETZA-HITZARMENA, NAFARROAKO FORU
KOMUNITATEAREN, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ETA GOGORA - MEMORIAREN,
BIZIKIDETZAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN INSTITUTUAREN
ARTEKOA. GAIA: MEMORIA, BAKEA, BIZIKIDETZA ETA GIZA
ESKUBIDEAK.

Bilbon, 2021eko maiatzaren 26an.

BILDU DIRA

Alde batetik, Beatriz Artolazabal Albeniz andrea, Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua.

Bestetik, Miren Aintzane Ezenarro Egurbide, Gogora - Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko zuzendaria.

Eta bestetik, Ana Ollo Hualde andrea, Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko Harremanetako Departamentuko kontseilaria.

Hiru alderdiek beren autonomia-erkidegoen izenean eta haiek ordezkatzuz esku hartzen dute, eta egintza honetarako behar beste botere eta ahalmen aitortzen dizkiote elkarri.

ADIERAZTEN DUTE:

Administrazioen arteko lankidetzaren Konstituzioan ezarritako Estatuaren lurralde-antolamenduaren muinean bertan dago inplizituki ezarrita, eta, horregatik, autonomia-erkidegoen arteko elkarlan- eta lankidetzaren harremanak autonomien estatuaren esparru konstituzionalaren barruan daude; zehazki, Euskadiko Autonomia Estatutuaren 22.2 artikuluan eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 70.2 artikuluan.

Nafarroako Foru Komunitateak eta Euskal Autonomia Erkidegoak harreman berezia dute, kideetasun historiko, kultural, linguistiko, turistiko eta soziokulturala baitute; izan

2021eko azaroaren 8a, astelehena

ere, elkarlanerako tradizio luzea dute: elkarrekin parte hartu dute kulturari eta hizkuntzari lotutako erakundeak sortzen eta garatzen, eta sektoreko akordioak izenpetu dituzte hainbat arlotan.

Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Lankidetzarako Protokolo Orokorrak, 2016ko maiatzaren 10ean sinatu zenak, Hirugarren klausulako G letran honako jarduera-eremu hau ezartzen du: Bakea, bizikidetzeta eta giza eskubideak. Bi gobernuek uste dute elkarren arteko loturak bultzatu behar direla, elkarrekin adostuta, gure gizarteetan bakea eta bizikidetzeta sendotzeko behar diren baldintzak sortzen dituzten programak eta ekintzak sustatzen laguntzeko. Honako eremu hauetan ariko dira elkarlanean: pertsonaren duintasuna eta giza eskubideak errespetatzea eta sustatzea; indarkeria arbuiatzea eta deslegitimatzea, edozein ideia edo proiektu defendatzeko bitarteko gisa; biktima guztiek egia, justizia eta erreparaziorako duten eskubidea defendatzea; memoria kritikoak bizikidetzeta eraikitzeko duen zeregina; gure erkidegoetan gertatzen diren giza eskubideen urraketa guztiak argitzea; bakearen kultura eta errespetua, demokrazia eta bizikidetzeta bezalako balioak sustatzea.

Azaldutakoa kontuan hartuta, eta aipatutako Lankidetzarako Protokolo Orokorra garatzeko, beharrezko irizten zaio dokumentu hau sinatzeari, honako klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

LEHENA.- Xedea.

Hitzarmen honen helburua da ondo zehaztea Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko Harremanetako Departamentuko Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiaren eta Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen, Biktimen eta Aniztasunaren Zuzendaritzaren arteko lankidetzeta alor hauetan: memoria, biktimentzako arreta, bizikidetzeta eta giza eskubideak.

BIGARRENA.- Eskumena.

Urtarrilaren 19ko 12/2021 Dekretuak, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak, 19. artikuluan dioenez, Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetzeta Sailburuordetzari dagokio biktima guztien elkartasun-, aitortza- eta arreta-politiken jarraitutasuna, garapena eta hedapena diseinatzea eta sustatzea, eta entitate, elkarte eta erakundeekin lankidetzan jardutea eta elkarri eragitea helburu berak gauzatzeko.

Azaroaren 27ko 4/2014 Legeak, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua sortzekoak, 4.2 artikuluan institutu horren eginkizunei dagokienez ezartzen duenaren arabera, Institutuak arreta berezia jarriko du bere eginkizunak betetzerakoan instituzio publikoekin eta izaera pribatuko entitateekin eta haren eginkizunetan interesa duten elkarteekin lankidetzan jarduteko, gizartearekin ahalik eta harreman handiena izateko bidea bermatuz. Ildo beretik, Legearen 4.3.f) artikulua ezarritakoaren arabera,

2021eko azaroaren 8a, astelehena



Institutuaren eginkizunetako bat integrazioa da, elkarlana eta komunikazioa sustatuz institutuaren helburuen antzekoak edo osagarriak dituzten instituzioen eta entitate publiko eta pribatuen artean, kooperaziorako eta lankidetzarako behar diren protokolo eta hitzarmenak sinatuz memoriaren eta bizikidetzaren azpiegituren sare bat sortzeko, bertan integra daitezten institutuaren helburuekin bat datozen era guztietako zentroak.

Bestalde, Nafarroako Foru Komunitateko lehendakariaren abuztuaren 6ko 22/2019 Foru Dekretuak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuen egitura ezartzen duenak, 11. artikuluan ezartzen du Herritarrekiko Harremanetarako Departamentuaren eskumen-eremua. Artikulu horretan, Herritarrekiko Harremanetarako Departamentuari esleitu zaio Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak besteak beste honako arlo hauetan eskuratuak dituen eskumenak betetzea: bakeari, bizikidetzari eta giza eskubideei buruzko politikak; Nafarroako Memoriaren Institutua, eta memoriaguneak.

HIRUGARRENA- Lankidetzan aritzea memoriaren eremuan.

Batez ere, hauen bidez gauzatu da lankidetzak: Nafarroako Gobernuak Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiko Nafarroako Memoriaren Institutua eta Euskal Autonomia Erkidegoko Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua -GOGORA-. Ekintza eta programa hauetan garatu da:

- Frankismoaren errepresioaren biktimei buruzko informazioa trukatzeko, DNA bankuaren eta lurralde bakoitzeko dokumentazio zentroen bidez.
- Memoria biltzeko eta zaintzeko lanetan laguntzea, baterako ikerketa-proiektuen bidez.
- Memoria zabaltzeko proiektuak bultzatzea, erakusketak programatuz.
- Hezkuntza-esparruan lankidetzak abian jartzea, eskola-trukeak eta memoria belaunaldi belaunaldi transmititzeko proiektuak erraztuko dituzten proiektuak ezagutaraziz, hala nola Memoria duten Eskolak.
- Terrorismoaren eta indarkeriaren biktimen ikus-entzunezko funtsa partekatzea, biktimek berek horretarako baimena ematen badute.
- Arlo honetan elkarren interesekoa den edozein proiektu eta ekimen berri.

LAUGARRENA- Lankidetzan aritzea biktimei arreta emateko eremuan

Lankidetzak, batez ere, Nafarroako Gobernuak Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiko Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zerbitzuko Biktimen Arretarako Bulegoaren bitartez eta Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide,

2021eko azaroaren 8a, astelehena

Biktima eta Aniztasun Zuzendaritzaren bitartez gauzatuko da, honako ekintza eta programa hauetan:

- Biktimei arreta integrala emateko zerbitzuak.
- Kalte-ordainak eta prestazioak emateko neurriak.
- Biktimek ikastetxeetan parte hartzeko programak.
- Biktimen eskubideei buruzko gizarte-sentsibilizazioko jarduerak eta ekitaldiak.
- Biktimen eskubideen alde lan egiten duten elkarte eta fundazioekin lan egitea.
- Elkarren interesekoa den edozein proiektu eta ekimen berri.
- Etorkizunean gara daitezkeen antzeko beste edozein ekintza eta programa.

BOSGARRENA- Lankidetzan aritzea Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen eremuan.

Lankidetzan, batez ere, Nafarroako Gobernu Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiko Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zerbitzuaren bitartez eta Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaritzaren bitartez gauzatuko da, honako ekintza eta programa hauetan:

- Bizikidetzarako planak
- Giza eskubideen agenda orokorra
- Hezkuntza-programak
- Bizikidetzaren aldeko ekimenak sustatzea toki-erakundeekin batera
- Irabazi-asmorik gabeko elkarte eta erakundeekin jarduteko programa
- Giza eskubideen urraketen gaineko ikerketak
- Aniztasunaren kudeaketa publikoa
- Bakearen eta giza eskubideen kulturaren arloko sentsibilizazioa
- Erradikalizazioa eta gorroto-diskurtsoak prebenitzeko programak
- Elkarren interesekoa den edozein proiektu eta ekimen berri.
- Etorkizunean gara daitezkeen antzeko beste edozein ekintza eta programa.

SEIGARRENA- Garapen eta Jarraipen Batzordea

Hitzarmen hau formalizatu eta gehienez ere hiru hilabeteko epean, Garapen eta Jarraipen Batzorde bat eratuko da. Batzordearen xedea hitzarmen hau betetzea izango da. Batzorde hori arduratuko da informazioa trukatzeko eta dagozkion ebaluazio- eta balorazio-txostenak egiteaz. Ohiko bilera urtean behin egingo du, eta ezohiko bilera Batzordeak berak hala erabakitzen duenean.

ZAZPIGARRENA- Ez-betetzeak

Garapen eta Jarraipen Batzordeak ezarriko ditu hitzarmen hau ez betetzearen ondorioak. Nolanahi ere, adostutakoa betetzen ez bada, beste alderdiak hitzarmena salatu ahal izango du, azkentzeko asmoz.

2021eko azaroaren 8a, astelehena



ZORTZIGARRENA. - Finantzaketa

Hitzarmen honek ez du berriaz jasotzen alderdi sinatzaileentzako eduki ekonomikorik. Hitzarmena gauzatzeko beharrezkoak diren lankidetzaproiektu, -programa eta -ekintzak erakunde sinatzaile bakoitzak ematen dituen baliabide propioekin finantzatuko dira, eta baliabide horiei eutsiko diete, hurrenez hurren, betiere kreditu-baimen egokia badago eta dagokion tresna juridikoaren bidez onartzen badira.

BEDERATZIGARRENA- Zuzenbide aplikagarria

Hitzarmen honen garapenean zehar hartzen diren erabaki adostuak alderdi bakoitzak gauzatzeko dituzten bere lurralde-eremuan, bere barne-zuzenbidearekin bat etorritik.

Hitzarmen hau aplikatzean egiten diren informazio-truke guztietan ezinbestean bete behar dira datu pertsonalen babesari lotuta honako araudi hauetan ezartzen diren printzipioak eta irizpideak: 2016/679 Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa; eta sinatzaileen lurralde-eremuko barne-zuzenbidea.

Hitzarmen honen interpretazioari buruzko gaiak aho batez ebatziko dira.

Auzirik sortuz gero, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mende jarriko da, hitzarmen honek administrazio-izaera baitu.

HAMARGARRENA- Indarraldia eta eraginkortasuna

Hitzarmen hau sinatzen den egunean jarriko da indarrean, eta lau urteko iraupena izango du. Hitzarmen hau sinatzen duten autonomia-erkidegoek konpromisoa hartzen dute hitzarmena eraginkorra izateko behar den izapidetza egingo dutela beren autonomia-estatutuen eta antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko arauen arabera.

HAMAIKAGARRENA- Hitzarmenaren luzapena, azkentzea eta aldaketa

Aurreko klausulan aurreikusitako epea amaitu aurreko edozein unetan, alderdi sinatzaileek aho batez adostu ahal izango dute lau urte gehiagorik luzatzea.

Hitzarmena azkendu egingo da hitzarmenaren indarraldia amaitu eta luzapena adostu ez bada, bi alderdiak ados jarri badira edo alderdietako batek berriaz salatu badu. Azken kasu horretan, izan ere, hitzarmenak indarrean egoteari utziko dio, salaketa beste aldeari modu sinesgarrian jakinarazi eta sei hilabetera.

2021eko azaroaren 8a, astelehena

Gobierno de Navarra
Departamento de Relaciones
Ciudadanas



Nafarroako Gobernua
Herriarrekiko Harremanetako
Departamentua

EUSKO JAURLARITZA**GOBIERNO VASCO**BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILADEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTIZIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Alderdietako edozeinek sustatu ahal izango du hitzarmenaren baldintzaren bat berrikustea. Aldaketak hitzarmenean sartu beharko dira, eta alderdiek izenpetu beharko dituzte.

HAMABIGARRENA- Eskumen autonomikoak babestea.

Lankidetzeta-hitzarmen hau sinatzen da deusetan galarazi gabe hitzarmena sinatzen duten autonomia-erkidegoek bakearen, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan dituzten eskumenen babesa.

Ados daudela adierazteko, alderdiek lankidetzeta-hitzarmen honen hiru ale sinatzen dituzte, bi hizkuntzatan, goiburuan aipaturiko lekuan eta datan.

Ana Olo Hualde
Nafarroako Gobernuko Herriarrekiko
Harremanetarako kontseilaria

Beatriz Artolazabal Albeniz
Eusko Jaurlaritzako berdintasun,
Justizia eta Gizarte Politiketako
sailburua

Miren Aintzane Ezenarro Egurbide.
Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko zuzendaria